

# DROGETEN

ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 306. zenbakia. 2021eko abendua

**Aiur Areitio,  
motorrarekin  
bidea eginez**



# GABONETAN ERE, HONDAKINAK BIRZIKLATU ETA IZAN GARBI!

---

*Denona da,  
izan garbi*

 DebaBarrena

---



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Estibalitz González,  
Eneko López,  
Nahia Ruiz Albizuri,  
Jon Saez,  
Libe Solozabal  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Idoia Fernández.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Luis López, Patxi López,  
Valentín Mugarza, Nahia Rojo  
eta San Lorentzo Eskola.

**ARGAZKIAK:**

Estibalitz González,  
Idoia Fernández,  
Ainhoa Lasuen,  
Eneko López,  
Valentín Mugarza,  
Nahia Ruiz Albizuri,  
San Lorentzo Eskola  
eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Piedi Eizagirre,  
Ayoub Hdidou  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarren ahotik*

Gaia: Gabon-kanta

## Erregiak datoz

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Erregiak datoz etxe honetara,  
ikatza erosteko txanpon batena.  
Ataiko atian oillar bi,  
batak bestia dirudi,  
etxe honetako etxeoandriak  
Ama Birjiña dirudi.  
Ama Birjiña, Ama Birjiña  
zu zera zeruko erregiña.  
Pra, pra, pra, pra...  
pra, pra, pra, pra.

Gora erregiak, gora erregiak  
zuek zarie gure atsegiñak.  
Pra, pra, pra, pra...  
pra, pra, pra, pra.



Gasparrek oillar bi,  
Meltxorrek pelotak,  
Baltasarrek zesto bat  
gozoz beteta.  
Galtzerdi ta soñekuak  
Jesussek bialduak,  
Jesusen amak bialduko ditu  
kopin eta pillu.

# Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA ..... 4 Luis López (Suitza)	KIROLZALE ..... 16 Aiur Areitio
ELKARRIZKETA ..... 5-7 Lankidetzeta eta Elkartasun Kontseilua	ESKOLEN TXOKOA ..... 17 San Lorentzo eskolako berriak
MALLABIAN ZER? ..... 8-9 Maribi Urutxurtu Argiñano	IRITZIA ..... 18 Sexualitatea eta desgaitasun intelektuala
ERMUAN ZER? ..... 10 Mikel Quilez musikaria	BOTEPRONTOAN ..... 19 Maribel González
MOTZEAN ..... 11 Maritxu Ortuzarrek 100 urte	ANTZINAKOAK ..... 20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
GABONETAKO EROSKETA GIDA ..... 12-13	ZORION-AGURRAK ..... 21 Saldu, erosi edo agurtu
	URTARRILEKO AGENDA . 22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Luis López

40 urte baino gehiago damatza Luis Lopez ermuarrak Suitzan, Neuchâtel herrian hain zuzen ere. Bertan gauzatu du bere bizitza proiektua, eta duela egun gutxi erretiroa hartu du.

- 1980an, 18 urte zenituela, Suitzara joatea erabaki zenuen, zer dela-eta?

Garai hartan giro konplikatu zegoen han: krisia, drogak... eta nik nire bizitza egiteko gogo nuen, mundua deskubritu eta ikasi. Zortzi anai-arreben artean gazteena naiz, eta arreba bat Suitzan bizi zen ordurako. Aitak esan zidan zoraz nengoela, ikasketekin jarraitzeko, baina ez nengoen batere gogotsu.

- Erabaki erraza izan zen?

Lagunei agur esatea zailena izan zen, orduan ez zeudelako gaur egun dauden komunikatzeko tresnak. Aldi berean, indarra ematen zidan jakiteak noizbehinka itzuliko nintzela eta lorpen txikiak egingo nituela.

- Gogoan duzu lehenengo eguna?

Treanean joan nintzen, eta gogoan dut Genevako mugara heldu nintzenez, arropa erantsi eta birrikak begiratu zizkidatela. Hori egiten zuten atzerritik etorritakoe-

kin, ez dakit zer gaixotasun geneukala baztertzeko. Harrituta geratu nintzen!

- Lehen urteak errazak izan ziren?

Gogorak izan ziren. Larunbat batean heldu nintzen, eta astelehenean eraikuntza enpresa batean hasi nintzen lanean. Heldu berri eta gazteena izanik, lanik txarrenak ematen zizkidaten, eta hotz handia pasatu nuen. Dena den, frantsesez hitz bat ere ez nekien arren, berehala hasi nintzen lagunak egiten. Oso ondo hartu ninduten.

- Lehen urte haietan Ermura bueltatu zinen?

Bai, legeak zioen lehen lau urteetan 3 hilabete gure herrialdean igaro behar genituela urtero. Eta gainera, soldadutza egiteko bueltatu behar izan nintzen. Egonaldi horretan maitemindu egin nintzen, motorra erosi eta, lana topatu izan banu, bertan jarraituko nuke. Baina dirua bukatzen joan zen, ezin izan nuen maitemindutako neska horrekin kontaktatu, eta azkenean Suitzara bueltatu nintzen.

- Ordutik aurrera nola joan ziren gauzak?

Laburbilduz, hemen etxea erosi nuen, neska bat ezagutu, Ermuko elizan ezkondu eta seme bat izan genuen, Loïc. Gero emaztea beste gizon batetaz maitemindu zen, banandu ginen, eta semea nirekin geratu zen. Handik urtebetera Sandra deitutako emakumeaz maitemindu, ez-



Luis López 1980an, Ermutik joan zenean.



konduta eta beste bi seme-alaba izan nituen: Loris eta Margault. Hiru seme-alabek aita esaten didate.

- Lanari dagokionez...

Eraikuntza enpresa berean jarraitu nuen 39 urtez. Igeltsero eta kontramaisu tituluak atera nituen, eta 20 urte obra-buru bezala aritu nintzen. Azken bi urteak beste enpresa batean eman ditut, eta azaroaren 30ean erretiroa hartu nuen. Orain kirola egiteko aprobetxatzen dut, etxekoekin egoteko eta bizitzaz gozatzeko.

- Ermuartzat edo suitzartzat duzu zure burua?

Ermukoa naizela esaten dut beti, eta bisitan joaten jarraitzen dut. Hemendik besarkada handi bat bidali nahi diot herri guztiari, bereziki Jesus eta Diego lagunei, eta maitemindu nintzen neska hari ere.

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**AIZ**

**AIZ Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen

# elkarrizketa

Arg.: Ainhoa Lasuen



**Ermuko Nazioarteko Lankidetza eta Elkartasun Kontseilua:**

## **“20 urte daramatzagu elkartasunean lan eta lan”**

Ermuko Nazioarteko Elkartasun eta Lankidetza Kontseiluak atzerabegirakoa egin die azken 20 urteetan burutu dituen ekintzei eta hausnarketei. Hainbat kolektibok osatzen duten Kontseiluak atzerritik etorritako jendeari ongi etorria eman eta gizartea sentsibilizatzeko ardura hartu zuen duela bi hamarkada, eta ordutik elkarlan iraunkorra burutu du nazioarteko lankidetzaren eta elkartasunaren arloan. Hau islatu nahian, burututako ekimenak batzen dituen memoria sortu dute: alde batetik liburu bat argitaratuz eta bestetik dokumental bat sortuz, Ander Prolek eta Kepa Gerrikabeitiak egin. Honen berri jasotzeko Juantxo Diezekin eta Idoia Goikoetxearekin bildu gara.

**- Zein asmorekin sortu zen Elkartasun eta Lankidetzak Kontseilua?**

Kontseilua orain dela 20 urte sortu zen, eta Ermuko hainbat kolektibok eta Udalak parte hartu zuten. Lortu nahi genuen nazioarteko ekimenak era kooperatibo batean bultzatzea, bakoitzak ahal zuenarekin lagunduz. Honekin buruan kanpaina asko egin ditugun arren, badira bi kanpaina urteetan zehar mantendu ditugunak: lehenengoa, munduko herrialde ezberdinen arteko desorekaz sentsibilizatzea; bestea, desoreka honek bultzatuta haien herrietatik joan edota ihes egin behar izan duten horientzako harrera bat egitea gure herrian.

**- Asko zarete Kontseiluan?**  
Azken bi hamarkadetan elkartasunaren arloan lan egin duten herriko elkarte guzti-guztiekin parte hartu dute Kontseiluan. Momentu honetan 6 kolektibo biltzen gara: Urko-Punta, Eguarbitza Misisio Taldea, Komite Internazionalistak, Caritas, Colibres eta Sahararen aldeko Plataforma. Dena den beharrezkoa izango da lan honetan lagun berriekin parte hartzea, bereziki gazteekin, energia berriarekin, ideia berriekin eta gauzak



**“Gure nahia da bakoitzak bere pentsamenduekiko hausnarketa egitea”**

egiteko modu berriekin datozenak.

**- Zeintzuk izan dira herrian gehien ikusarazi diren ekimenak?**

Esango genuke Kulturarteko Jaia dela aipagarriena. 2001 urtetik aurrera egiten da, eta herriko jende eta kultura ezberdinak batzen ditu. Uste dugu herritarrentzat ere festa garrantzitsua dela, denok gozatu eta besteengandik ikasi dezakegulako. Oso entzute-tsua da ere 2018an sortutako

Ermua Harrera proiektua. Atzerritik gure herrira etorri direnei laguntza bat eskaini ahal izateak asko markatu gaitu. Elkartasun puntu batetik konprometitzera behartu gaitu, gure gizarteak pertsona hauekiko jartzen dituen oztopoen kontra, hala nola gero eta nabariagoa den arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko. Harrera proiektua oso egoera zaurgarrian daudenei laguntza eskaintzeko sortu zen, elkartasuna adierazi ahal izateko.

**- Zer lortu nahi duzue proiektu hauekin?**

Lortu nahi dugu bakoitzak bere ekintzekiko eta pentsamenduekiko hausnarketaxoa egitea. Gure ustez elkartasuna ezin daiteke ulertu hausnartu gabe, eta askotan, elkartasunaren izenean, desorekak errepikatzen ditugu behin eta berriro. Elkartasuna ez da asistentzia-dinamikekin jarraitzea, beharra dutenei entzun eta behar duten horretan laguntzea baizik, nola eta zergatik laguntzen dugun pentsatu ostean.

**- Nola sortu zen liburua kale-ratzeko asmoa?**

Liburua sortzeko abiapuntuak COVID-19aren garaiarekin zerkusua dauka. Denok etxean geundenez ezin genuen ezer egin, eta bururatu zitzaigun hausnarketarako eta gure lana balioan jartzeko proiektu bati ekitea. Argazkiak eta testigantzak gureganatzeaz eta batzeaz gain, kritikarako eta hausnarketarako ere erabili genuen: Zer egin dugun, nola egin dugun eta nola jarraitu dezakegun pentsatu ahal izateko. Proiektu hau bi urteren buruan egitea prentsatu genuen: lehenengoa, materialak eta informazioa bildzeko eta liburua egiteko; bigarrena, liburua eta dokumentala

**LEIRE RASCO**  
BIZARTEGIA  
ILEAPAINDEGIA  
943 17 17 96  
@LEYTHEBARBER  
C/GOIENKALE NS  
ERMUA (BIZKAIA)

Komunitateak  
**San Pelayo**  
Aholkularitza  
juridikoa  
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Zure  
publizitatea:  
**DROGETEN** ITURRI  
Ermuko eta Mallabiko  
herri-aldizkaria  
943 179350 / 688 632876  
drogeten@gmail.com

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Baxo  
48260 Ermua Bizkaia  
94 317 66 90  
peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com

**RIF**  
ITURGINTZA  
KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10

argitaratzeko, zabaltzeko eta aurkezteko. Orain arazo bat dugu, lehenengo urtean Udalak proiektua ontzat eman zigulako, baina aurten ez digulako dirulaguntzarik emango liburua argitaratzeko. Baina liburua kalean dago jada, eta berau argitaratzek ekarri dituen gastu guztiak ordaindu ezinik gabilta.

### - Zer da liburuan topa deza-keguna?

Liburuan jasota daude Kontseiluko parte-hartzaileak (izan

direnak eta garenak), eta aurrera eraman diren kanpainak eta ekintzak. Liburuaren helburuetako bat da, egindakoa balioan jartzeaz gain, herritarrei egindako lana helaraztea ere, bidetxo bat eginga dagoela esateko, guregana gerturatu daitezen gonbidatuz.

### - Dokumentala ere sortu duzue, zerbait gehiago eskaintzeko asmoarekin egin zen?

Dokumentalean, liburuan ez bezala, testigantzak zuzenean

## “Liburua argitaratzek ekarri dituen gastu guztiak ordaindu ezinik gabilta”

jasotzen dira, bakoitzak bere esperientziak hitz propioetan azaltzen. Uste dugu bideoak lagunduko duela gure mezua zabaltzen, eta parte hartu nahi duten guztiei gonbita helarazten.

### - Aurrera jarraitzeko zer beharko zenukete?

Sortu ginenetik Udalak asko lagundu izan digu, eta horrela islatu nahi izan dugu liburuan. Baina orain dela hilabete batzuk gauzak aldatu dira, eta aurrera egitea geroz eta zailagoa da. Hilabete honetan esan digute dirulaguntzarik ez dugula izango. Ulertezina da. Dirurik gabe, zaila izango da aurrera egitea. Hala ere, ahal ditugun heinean gure proiektuak

aurrera eramango ditugu, Kulturarteko Jaia bezala.

### - Nora jo behar dute lagundu nahi dutenek?


Gurekin harremanetan jartzeko ZukAldatun galdetu daiteke. Bakoitzak ahal duenarekin lagundu dezake. Ermua-Harrera proiektuan adibidez, klaseak ematen, edota konpainia egiten. Badakigu denok ditugula hamaika gauza egiteko, baina pixka batekin asko lagundu daiteke. Liburuari dagokionez, Ermuko liburu-dendetan dago salgai, bai eta Idoia dendan, ZukAldatun eta Infreñu tabernan ere, 10 eurotan. Opari interesgarria gabon hauetarako!

Nahia Ruiz Albizuri



Dokumentala ikusteko bi aukera daude:

- QR kodigoa eskaneatu .
- Helbide honetara jo: [https://www.youtube.com/watch?v=k3ZboLO\\_xyE&t=29s](https://www.youtube.com/watch?v=k3ZboLO_xyE&t=29s)



Hamburguesería  
**TITANIC**



*Pintxo dastaketa poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

HARATEGIA - URDATEGIA  
**MIGUEL**  
2012ko BILBOKO  
TXORIZO TXAPELDETAN  
BIZKAIKO  
TXAPELDUNAK  
PROBLEMA 3-943170563  
ERMUA



ARKITEKTURA ESTUDIOA  
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU

**ZUK ERABAKI**

www.spata.es  
info@spata.es

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57



**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com

Maribi Urutxurtu Argiñano, irakasle ohia:

# “Umeak loratzen ikusteak magia itzela dauka”

17 urtez Mallabian eskolak ematen egon ostean, erretiroa hartu berri du Maribi Urutxurtu Argiñano berriztarrak. Bi alaben ama, lau iloben amama... etxeko txikiak dira orain bere lehentasuna, baina oraindik beste umeak, eskolakoak, ahaztu barik ditu.

**- Eskolan ze ziklotan aritu zara?**

Batez ere Lehen Zikloan eta gustuko izan dut: ume-ume datoz, irakaslearekiko hurbil, eta ikusteak zenbat aldatzen eta zelan loratzen diren, irakurketa eta idazketan zenbat aurreratzen duten... magia itzela dauka! Lan handia eskatzen du, baina jasotzen duzuna ere izugarria da.

**- Honek urteotan, eskola eta pedagogia zertan aldatu dira?**

Gestioan, ikaragarri! Burokrazia eta paperak betetzeak denbora piloa jaten digu. Bestalde, gizartearen gai mordoak eskolatzen dira, ikastetxearen gain jarriz horien irakaskuntza. Mallabiko eskolan ikusi dudana aldaketa euskararen erabilpenean egon den jaitsiera izan da, pena handia ematen didana. Pedagogia kontuetan esango nuke lehen bideratuago zela; orain proiektu bidez lan egitean umeen jakin-nahia eta

jakinduriatik abiatzen gara, talde lana eta parte-hartzea bultzatuz.

**- Eta umeak aldatu dira?**

Umeak ume, baina zelan gaur egun nahiak eta gauzak erraz lortzen dituzten, kostatzen zaie esfortzua egin beharra edo ezetz bat entzutea.

**- Zure ustez, zer eskaini diozu eskolari?**

Nire lana eta inplikazioa eskola aurrera ateratzeko. Ahal izan dudana guztia ilusio eta gogoarekin eskaini diet guraso, ume, lankide zein eskolari. Eginda-koaz gustura!

**- Eta zer eman dio eskolak Maribiri?**

Gauza asko: alde batetik, umeen poztasuna eta maitasuna, ikustea zelan doazen ikasten eta hazten; bestetik, nire lana baloratua izan dela guraso zein kideengatik eta ez dago dirurik aitortza hori ordaintzeko!



**- Erretiroa hartu berri duzu. Zelan antolatzen ari zara denbora?**

Ideia aritzen oraindik. Lasai hartu nahi dut: hor daukat milaka argazki antolatzeko, etxeko armairuak husteko... baina poliki-poliki hasi naiz. Yogara joaten naiz astean bi aldiz, nire mendi bueltak eta ibilbidetxoak egiten ditut, Oportotik etorri berri naiz... Gainera, egunero nire ilobatxoekin egoten naiz. Hori sakratua da; oraintxe gozatu nahi dut beraiekin, segituan hazten dira-eta.

**- Zer egin duzu eskolako paperekin, liburuekin eta ordenagailuan gordetakoekin?**

Ordenagailuko gauzak lehen bestean daude. Paperekin pare bat aldiz ahalegindu naiz eta erdi garbiketa bat egin dut. Lotura eta gogorapen asko daude tarteko eta denbora beharko dut gauza batzuk botatzeko.

**- Proiekturik buruan bueltaka?**

Nagusien talde aktibo batean sartzea, irakurketa taldean eta Berbalagunen izena ematea, txistua berriro hartzea, Donejakue bidea amaitzea, bidaiatzen eta tokiak ezagutzen jarraitzea... poliki-poliki, baina gogotsu!

Estibalitz González

## Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak  
- Ostalaritzarako muntaiak  
- Pertsianak  
- Instalakuntzak eta konponketak  
- Motorizazioa

- Manparak  
- Segurtasun pertsianak  
- Pertsiana dekoratiboak  
- Estoreak  
- Eltxo-sareak

Tallerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com



## DAMARIS PAN ARTISTA BMW PINTURA LEHIAKETAKO FINALERAKO SAILKATU ZEN

Damaris Pan mallabitarrak BMW Pintura Lehiaketaren 36. edizioan parte hartu zuen azaroan. Ia 3.000 artelan aurkeztu ziren lehiaketa honetara, eta Damarisen oihal gaineko olio-pintura lehen 10en artean sailkatu zen. Sari banaketa azaroaren 24an burutu zen Madrilako Teatro Realean, baina mallabiko sortzaileak ez zuen saririk eskuratu.



## GABONAK 2021

**Abenduaren 19an, igandea**

Superigandek:

11:00 Multikirola eskolan.

16:30 Zinema Kontzejuzarreen. Antolatzailea: A.D. Mallabia F.T.

**Abenduaren 22an, asteazkena**

18:00-20:00 "Fake News: albiste faltsuak", kafea eta solasaldia Kontzejuzarreen. Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte.

**Abenduaren 24an, ostirala**

18:00 Olentzero eta Mari Domingi, parkeko aterpean. Antolatzailea: Zaparrada Kultur elkarte.

**Abenduaren 27tik 30era**

17:00-20:00 Argazki erakusketa: "Exodoa: Hondakinak aterpe", Kontzejuzarreen. Antolatzailea: Mallabiko Udala.

**Abenduaren 30ean, osteguna**

19:00 Kilian Jorneten filma: "A Fine Line", Kontzejuzarreen. Antolatzailea: Mallabiko Udala.

**Urtarrilaren 2an, igandea**

16:30 Zinema Kontzejuzarreen. Antolatzailea: A.D. Mallabia F.T.

**Urtarrilaren 3an eta 4an**

11:30-13:30 // 16:30-19:30 Hour parkea herriko frontoian. Antolatzailea: Mallabiko Udala.

**Urtarrilaren 9an, igandea**

11:00 Eskolarteko gomazko paleta txapelketa: kadeteak, herriko frontoian. Antolatzailea: Mallabiko pilota eskola.

16:30 Zinema Kontzejuzarreen. Antolatzailea: A.D. Mallabia F.T.

**OHARRAK:**

Olentzero eta Mari Domingirentzat gutunak Liburutegian, eskolan eta Udaletxeko buzoian jasoko dira.

Eremu itxietako jarduera guztietan COVID ziurtagiria eta NANA aurkeztu behar dira (Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 14ko 47/2021 dekretua).

# betiON

## GARA



10 urte zure ondoan

betiON, Euskadiko Telaguntza Zerbitzu Publikoaren medaila gorriak segurtasuna eta lasaitasuna eskaintzen digu eguneko 24 orduetan.

Argibide gehiago hemen:  
[www.euskadi.eus/betion](http://www.euskadi.eus/betion)  
 900 851 600  
 012 Zuzenean

Euskadi, auzolana



REPÚBLICA ESPAÑOLA  
ESTADO ESPAÑOL



GOBIERNO VASCO  
DIPUTACIÓN FORAL DEL VALLE  
DIPUTAZIÓI FORAL DE BIZKAIA  
DIPUTAZIÓI FORAL DE GIPUZKOA



Xabier Lapitz: Kazetaria  
Itziar Aizpuru: Aktorea

**- Nola hasi zinen musikaren munduan?**

Txikitatik izan dut etxean, aita oso rockeroa baitzen eta amak musika entzuten zuen leku guztietan. 14 urterekin David Guettaren lehen seta entzun nuen, eta sentsazio deskribaezina eragin zidan. Orduan erabaki nuen nire musika sortzea, eta lehen lan-tresna deskargatu nuen. Ez zen uste bezain erraza, eta saiakera ugari egin nituen orain egiten dudana iritsi aurretik.

**- Zein musika-generorekin egiten duzu lan?**

*Progressive house* musika ekoizten dut, *house* musikaren azpigeneroa. 2020ko apirillean kaleratu nuen nire azken abestia, Jose Posadarekin lankidetzan, eta horren ostean geldialdi txiki bat egitea erabaki nuen, Mikel Quilez markak izan nahi duen soinua aurkitzeko.

**- Zer nolako garrantzia du musikak zure bizitzan?**

Dena da, egunero entzuten dudana melodia. Nire ametsa da, eta prest nago amaierara arte borrokatzeko, umetako hobya lan bihurtu arte.

**- Zeintzuk dira zure erreferenteak musikaren munduan?**

Umetan entzuten nituenak: David Guetta, Avicii..., komertzialenak nolabait esateko. Baina ez daukat errutinarik musika sortzerako orduan. Askotan, kalean nagoela etortzen zaizkit melodiak, akordeak edo beste edozein ideia burura, eta ahots-ohar batean grabatzen ditut. Gero, etxean, ideia horietatik abiatzen saiatzen naiz.

**- Nola hasi zinen Spotify plataforman?**

Hasieran YouTube plataforman atera nituen abestiak, inolako formakuntzarik gabe, zer gerta



**Mikel Quilez, musikaria:**

## “Niretzako musika dena da, nire eguneroko melodia”

**19 urteko ermuar hau musikazalea izan da beti, baina 14 urte zituela bere abesti propioak sortzen hasi zen. Gaur egun, Spotify plataforman dagoen artistetako bat da, eta 500 entzule baino gehiago ditu hilero.**

zitekeen ikusteko, eta Instagramen horien berri ematen nuen, jendearen feedbacka jasotzeko. Pertsona batzuei nire lana gustatu zitzaion, eta haien diskoetxerako lanean hasi nintzen. Abestiak Inter-

neteko hainbat plataformatan kaleratu genituen.

- Gehien entzuten den zure abestietako bat *TIM* da, 538.404 erreproduzioekin. Zer sentsazio sortzen dizu kopuru horrek?

Arraroa da. Plataformen estatistiken arabera, herrialde guztietako lagunek jarraitzen naute (Kanada, AEB, Finlandia...), eta izugarri gustatzen zait haien mezuak jasotzea.

**- Zer iruditzen zaizu plataforma horiek artistei eskaintzen dizkieten aukerak?**

Duela urte batzuk pentsaezina zen. Etorkizunean, bai musikan bai beste edozein jardueratan, aukera paregabea da daukaguna erakutsi eta mundu osora zabaltzeko.

**- Zertan zabiltza egun?**

Egun *produktore mamu* gisa ari naiz lanean: nirekin harremanetan jartzen den pertsonaren izenean abestiak sortzen ditut, alegia. Ekoizleen denbora faltagatik edo beste edozein arazoirengatik datoz niregana.

**- Zertan datza DJ edo musika-ekoizle baten funtzioa?**

Lan guztiz desberdinak dira. Ekoizleak emozio bat transmititzen du musikaren bidez, ideia bat abesti bihurtzen du. DJak, aldiz, abesti horiek entzuleei aurkezten dizkie, ikuskizun bat sortuz.

**- Ametsa errealitate bihurtzen ari da. Ingurukoen babesa izan duzu bide honetan?**

Bai, asko lagundu didate lagunak zein familiak. Haien babesik gabe ez nintzen iritsiko nagoen lekura. Oso urrun ez bada ere, asko pozten nau.

**- Noraino irits daiteke Mikel Quilezen musika?**

Oso pozik nago orain arte lortutakoarekin, baina espero dut egunen batean mundu osora iristea. Oraingoz Ermuan sortu nahi dut abiapuntua, eta zirkulua urratsez urrats handitzen joan.

**Eneko López**

**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**

**PALACIOS SM**

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**

**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefonoa 943 17 04 14

## Maritxu Ortuzarrek 100 urte bete ditu

Mallabiko Galarra baserrian jaio zen Maritxu Ortuzar Arriaga orain 100 urteko Kontzeziño egunez. Ermura ekarriko zuen gerora bizitzak, Luki Agirregomezkorta, Lomiñoneko semeetako bat ezagutu eta haretxekin ezkondu ostean. Lau seme-alaben ama, zazpi iloben amama eta bost biloben birramama da, eta bere urtegunean denak izan zituen inguruan. Pozez zorutzen eta emozionatuta egon zen. "Zeinek esan bihar zostan..." ehungarrenera ailegatu dela eta harrituta!



### INAUTERIETAKO KARTEL LEHIAKETA MARTXAN DA

Ermuko Udaleko Kultura Saila 2022ko inauteriak iragarriko duen kartela aukeratzeko bidean dago. Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek otsailaren 3a baino lehen bidali behar-ko dituzte euren lanak kultura@udalermua.net helbidera. Otsailaren 5ean jakinaraziko da irabazlearen izena, eta honek 500 euroko saria jasoko du.

## Aitzol Beristain azkoitiarrak irabazi du Danobatgroupeko lehiaketa

"Euskaraz izango gara" lema aukeratu du aurten Danobatgroup Kooperatiba Taldeak Euskararen Nazioarteko Egunaren lehiaketarako. Lehiaketa Kooperatiba Taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei eta gizarte osoari orokorrean zuzendu da, eta Aitzol Beristain azkoitiarrak irabazi du saria: Bizkaiko zuhaitz-etxe batean egonaldia bi laguntzat. Orain dela 21 urtetik hona ari da kooperatiba talde hau bere egunerokotasuna euskaraz izateko lanean, eta aurten, 2021-2024ko plan estrategikoa diseinatu, eta hurrengo 4 urteetarako euskara planeko erronkak eta helburuak ere onartu ditu. Danobatgroupek harreman sare zabala du eta lanerako hizkuntza asko erabili eta kudeatzen ditu, baina Euskal Herriko lantegietako langileekin, hornitzaileekin, bezeroekin, ikastetxeekin eta administrazioekin euskara erabiltzeko erabakia hartua du. Horren adierazgarri dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak eta lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak. "Euskaraz izango gara" da Danobatgroupek etorkizunerako aurreikusten duen agertokia, eta agertoki hori errealitate bihurtzeko lanean ari da, bai eguneroko lanean, ikerketa eta garapenean zein teknologia berrietan, besteak beste.



**Zentzuz erosi.  
Ondo informatu zaitez.  
Ezagutu zure eskubideak.  
Baztertu estereotipoak.**

**Zeu zara  
zure  
influencer  
onena.**

**#KontsumitzenJakin**



**kontsumoBIDE**  
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# GABONETAKO E

**Argintxu**

*Hot dog eta izozki naturalak ditugul!*



Erdikokale 3 · ERMUA  
943 57 03 12 / 648 85 05 38

**ITZE**  
OPTIKA  
AUDIO



Probaleku 7 - Ermua  
943 17 46 51

Salón de Belleza **irati**



San Pelayo 4, behea ERMUA · 943 17 41 49

**F. PASCUAL** Arane, 6  
Tif.: 943 20 61 64  
Fax: 943 20 85 43  
20600 EIBAR  
(Guipúzcoa)

**VIRGINIA PASCUAL**  
Zubiaurre, 36-38 (bajo)  
Tel y Fax: 943 17 68 28  
48260 ERMUA (Vizcaya)

MUEBLES DE COCINA INTERIORES

[www.cocinaspascual.com](http://www.cocinaspascual.com)

Poltsak, karterak, gerrikoak,  
manikurak, maletak,  
osagarriak eta opariak.

**SAGARDUI**  
poltsak

943 17 03 05  
b.sagardui@gmail.com

Zubiaurre 29  
48260 Ermua (Bizkaia)

**SFERICO**  
KIROLAK

Adin guztietarako kirol-jantzi eta oinetakoak.  
Ekipazioak, estropazioa, jaietarako eta ezkondu aurreko agurretarako atropak, kartelak, flyerrak, giltzatarakoak, eta askoz gehiago....

Zubiaurre 14 · ERMUA  
943 030 448



[Instagram](#) [Facebook](#) [WhatsApp](#)

**ZAPA TXIKI**



€/ Zubiaurre, 26 - ERMUA

**nane**  
moda

**ONLY. JACK & JONES. MORGAN !SOLID**

Torrekua kalea 2 · ERMUA · 943 17 34 66  
[www.facebook.com/nane.moda](http://www.facebook.com/nane.moda)

# EROSKETA GIDA



**IZARBI**

Golenkale, 7 - 48260 Ermua - 946 590 140  
f Izarbi Ermua

EZ GALDU  
INOIZ  
IZARBIREN  
ARGIA  
EGUBERRI ONU!




**IZAGIRRE**

Calvin Klein  
Punto Blanco  
DIM  
Playtex  
Tommy Hilfiger  
Freya  
John Frank...

Komentukua 2 - Ermua - 943 170 277

f Instagram Comercio Izaguirre



**Kokko**

Tel. 943 38 33 65  
Zubiaurre 16-18, behea  
48260 ERMUA (Bizkaia)

Eskarak ogiteko:  
f Instagram 634 03 46 91



**XIRIPOT**  
LIBURU-DENDA

Zubiaurre 15  
ERMUA  
943 17 25 12  
688 71 31 89

Zorionak eta urte berri on!



*Bitxi-denda*  
*Urtzi-denda*

**Senén**  
1978

*Tailer propioa*

*Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte*

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (Bizkaia) Webgunea: joyeriosenen.com - Emaila: joyeriosenen@gmail.com



**quetzal**  
[Camapa, bitxiak, opaniak...]

Zubiaurre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com




**Ferretería ANBOTO**  
Burdindegia

Orain KOTXKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 31 59 75  
634 33 63 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es



**DG Horacio Decoración**  
[ARBUENA - ALZANAZ - OIARZARUA]

W Castellana 10 - Ermua  
941 03 15 80 / 489 61 04 38  
www.horaciodecoracion.com

EUSKAL ONDARE INDUSTRIALA,  
ERAKUSKETAK, KULTUR EKITALDIAK,  
BISITA GIDATUAK...  
BIZITZAZ BETERIKO MUSEOA.  
**Parte hartu nahi duzu?**



**Nondik gatozen ezagutu,  
nora goazen jakin ahal izateko**

Errementarien garaitik XIX. mendera arteko industriaren bilakaera ezagutzeko museo aparta da Elgoibarkoa. Aire bidezko uhal eta poleen bitartez osatutako transmisio sistema erabiltzen zuen mekanizazio tailer batetako giroa zintzoki erreproduzitzen du. Museo bizia da, makina guztiak martxan ikus daitezke. Estatuan bakarra.

Ez galdu esperientzia ikusgarri hau bizitzeko aukera!

**Bisitak**



Bisita librea, gidatua, audiogidarekin,  
taldeentzat, ikastetxeentzat egokitua,  
enpresentzat, familientzat ...



## Antzinako ogibideak



Galtzear dauden antzinako ogibideen zuzeneko erakustaldiak.

## Kultur ekitaldiak



Euskal Herriko arte diziplina ezberdinak: kontzertuak, hitzaldiak, dantza ikuskizunak...

## Zientzia eta teknologia tailerrak



10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako Bizilabe tailerrak, erronka errealekin.



## Espazioen alokairua

Museoko espazioa erabilera anitzetarako alokatzeko aukera dago: bilerak, ekitaldiak, aurkezpenak, ikusentzunezkoak, telebista saioak etab. Leku paregabea, nortasun propioa duena!

T. 943 74 84 56

Makina Erreminta Museoa  
Elgoibar, Gipuzkoa  
[www.museoa.eus](http://www.museoa.eus)  
[museoa@museoa.eus](mailto:museoa@museoa.eus)



# Aiur Areitio, motorzaletasuna zainetan

**Olentzerok ekarri zion Aiur Areitio ermuarrari bere lehen motor elektriko, bi urte eta erdi zituela. Aitarekin Aixolako urtegiari buelta pare bat ematen hasi zen, eta gaur egun, 11 urterekin, nazioarteko moto-kros txapelketetan lehiatzen dihardu.**

**A**iur Areitio oso gazte hasi zen motorren munduan trebatzen, bizikletan ibiltzen ikasi baino lehen. Hiru urterekin Madrilera joan zen gurasoekin, "trial kid"eko ikastaro bat egitera, hau da, trialean aritzen ikastera. Bera bezalako umeei zuzendutako ikastaroa zen, kirol horretan jarduten dutenak oso goiz hasi ohi direlako praktikatzeko. "Moto-krosera egin nuen salto gero —azaldu du Aiurrek—, 50 zentimetro kubikoko KTM batekin". Eta teknika, gorputzaren-jarrera, mekanika eta elikadura lantzeko Burgosera joaten zen astebururo.

Aurten 85 zentimetro kubikoko Yamaha bat gidatu du, (adinagatik 65 zentimetro kubikokoa dagokio, baina altua denez 85ekoa erabili behar du), eta ez du atsendenik hartu: Espainiako Txapelketako lasterketa gehienetan parte hartu du, 3. postuan geratu da Euskadiko Txapelketan, Nazioarteko Txapelketan aritu da Mantuan (Italia) eta MX Academyko ikastaroa burutu du Madrilan. Bere azken jarduera momentuz Rufeán (Katalunia) izan da, Marc Márquez eta Álex Márquez anaien Allianz Junior Motor Campen parte hartzeko aukeratu zutelako, estatuko beste 19 gaztetxoekin batera.

Eta nola kudeatzen dira horrenbeste bidaia? "Furgoneta bat atondu behar izan dugu —azaldu dute Aiurren gurasoak diren Idoia Fernándezek eta Xuban Areitio—. laz 35.000 kilometro inguru egin genituen asteburuetan bakarrik. Azken finean, en-

trenatzeko gertuen daukagun zirkuitua 3 edo 4 ordura dago, joan-etorriak batuta". Onartzen dute gogorra dela horrenbeste mugitu behar izatea, eta ez dela kirol merkea: segurua, motorra, lasterketak, lasterketarako gurpil-azalak, gasolina, joan-etorriak..., baina gustura egiten dutela aitortu dute, umea pozik ikusten dutelako.

## Berrehun pultsazio

"Niretzat garrantzitsuena ez da ona izatea ala ez, baizik eta ondo pasatzea eta gozatzeta", argitu du Aiurrek, baina onartzen du lasterketa hasieretan ez dela batere gustura egoten, urduri baino urduriago baizik. "Estres handiko momentuak izaten dira —adierazi dute Idoiak eta Xubanek— baina Aiurrek oso irteera onak egiten ditu". Bihurguneak, *dubiak* eta saltoak datoz gero, norgehiagoka, eta 19 metroko jauziak abiadura handiko zatiekin nahasten dira. "Kirol exigentea da, kontzentrazio handia eskatzen duena —onartu du Xubanek—. Irteeraz gain, 20 minutu igaro behar dituzte gero 200 pultsazio minutuko. Kalkulatzailerak eta estrategia izan behar da". Bestalde, arriskuari aurre egiteko, Aiurrek konfiantza aipatu du, eta ondo pentsatu behar dela mugimendu bat egin aurretik.

Yamaha taldean eman ditu azken 3 urteak (bi urte 65 zentimetro kubikoko motorrarekin eta bat 85ekoarekin), eta bertan Álvaro Lozano pilotuaren laguntza eta formakuntza jasotzen du lasterketak



prestatzeko. Etorkizunera begira, Aiurrek argi dauka: "Moto-krosaz gain, *enduro* praktikatzeko hasiko naiz datorren urtean (aita bezala), eta nire ametsa da Espainiako *enduro*ko txapelketa izatea". Horretarako praktikatzeko hasi da jada, izan ere, Xavi León pilotuarekin ikastaroa egin berri du, bere idoloak burutik kendu ezinik: Graham Jarvis eta Billy Bolt. "Enduro extremo praktikatzeko dute, eta super onak dira!".

Motorren munduan zeharo murgilduta dago Areitio-Fernández familia, eta salatzeko dute futbolaren nagusitasunak beste kirol guztiak hutseratzen dituela, modu nabarmenean eskola esparruan, gainera. "Futbola gustukoa duten umeek ez dituzte beste kirolak onartzen, eta irakasleek ahalegin berezia egin behar du lukete beste kirol batzuk balioan jartzeko eta umeen ikuspegia zabaltzeko", aldarrikatu dute.

**Dorleta Vidal**



Drogeteniturrri, 306 zk.





# Euskararen Eguna ospatu genuen

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatu genuen eta, hilabete zehar landutako hainbat ekintzari eta jarduerari bukaera emateko, "Lorenzotxo" etorri zitzaigun eskolara. Oso pozik zeuden ikasleak, euskaraz pila bat jardun zutelako eta euskararen puzzleko piezak eskuratu eta bukatzea lortu zutelako. Hain pozik zegoen "Lorenzotxo" gelaz gela joan zela oparixto

bat eta txokolatea banatzen. Horrez gain, eskolako leihoak euskararen inguruko leloz bete genituen, eta familiek bidalitako argazkiekin "Guk euskaraz, zuk zergatik ez?" bideoa argitaratu. Musika, giro alai eta euskara-jolasak ere izan genituen primerako eguna pasatzeko. Guzti honen berri gure blogean daukazu: <https://sanlorenzoeskola.blogspot.com/>



## Martxan da esperimendazio eta matematika gunea Haur Hezkuntzan

Pasa den ikasturtean Lehen Hezkuntzan egin genuen bezala, aurten abian jarri dugu esperimendazio eta matematika gunea Haur Hezkuntzan ere. Espazio honen



helburua da umeen ikasketa prozesua manipulazioaren eta esperimendazioaren bidez gauzatzea eta ingurune erreala hurbiletik ezagutzea, objektu desberdinak behaketaren bidez aztertuz eta zentzumeneren bidez manipulatu. Objektuak esperimendatzean, umeek beraien hipotesiak eta iritziak adieraztea da gune honen interes puntua. Material ezberdinez osatutako gela da, zentzumenerekin zein ingurumenarekin lotutako materiala hain zuzen ere. Horrez gain, modu tradizionaletik at, haurrek jolasen bidez ikasi dezakete matematika. Hiru urtetik bost urtera bitarteko umeek dute gela honetaz gozatzeko aukera, astean bi saio eginez.

## Txoko berdea



Agenda 30 ingurugiro proiektua aurrera eramaten ari gara. Aurten berdegune eta basoen inguruan lanean gabiltza: gertu ditugun basoak ezagutzen ari gara, eta bertan dauden landare eta espezieak ikasten. Baina batez ere basoek eta berdeguneek duten garrantziaz jabetzen ari gara, hala nola inguru hauek, zaindu, babestu eta indartu behar diren kontzientziazioaz.



**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian  
tokiko

**PRO**  
arraindegia



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu**  
Taberna

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)

# Sexualitatea eta desgaitasun intelektuala

**O**rain dela gutxira arte, sexologiatik ez zitzaion jaramonik egiten desgaitasunak zituzten pertsonen sexualitateari; neurri batean, esparru horretan ere ez zelako hitz egiten pertsona hauen sexualitateaz, baina hori aldatzen ari da.

Sexualitatea lantzea desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatearen alde lan egitea da (inklusioa, pertsonen arteko harremanak eta ongizate emozionala, besteak beste), osasunarekin lotuta dago (tartean sexu abusuak prebenitzeko eta genero indarkeria saihesteko) eta baita eskubideekin ere.

Argitu behar da sexualitatea lantzen dugula diogunean, ez garela soilik sexu harremanez ari (koitalak izan

ala ez). Gorputzak, orientazioak, desioak, adierazpenak, identitateak... ere barne hartzen ditu.

Pertsonak beren gorputzari buruz ikasi behar dute (nola garatzen diren, hilekoa, genitalak, nolakoak diren besteen eta beraien gorputzak...). Ondorengo erronka da eredu pluralak eskaintzea, nor bere burua onartzen ikasteko, sexualitatea modu egokian bizi ahal izateko eta maitatuak sentitzeko. Eta gutxieneko helburu hauek desgaitasunen bat duten pertsonentzat eta pertsona guztientzat dira egokiak. Aldea da, agian, pertsona hauekin ahalegin handiagoa egin behar dugula, baina helburuak berberak izan behar dira; bestela, ez litzateke koherentea izango. Sexualitate bera, helburu berak, estrategia desberdinak.



Nahia Rojo

Sexualitatea lantzeko oinarriko proposamenen artean, informazioa eta heziketa sexuala naturaltasunez eta beldurrik gabe eskaintzea legoke. Gainera, beharrezkoa da esperientziak eta zalantzak partekatzeko espazioak ematea. Hala nola espazio fisiko intimoak ere, bakarrik egoteko edo beste pertsona batzuekin sexu jokabideak izateko aukera izan dezaten. Eta nola ez, haien gorputzak eta intimitatea errespetatu behar dira, pertsona bakoitza bere gorputzaren jabe dela erakutsi.

Bada garaia desgaitasuna duten pertsonekin lotutako tabuak hausteko, haien sexualitateari balioa emateko eta haien ahotsak entzuteko. Isiltasunak ez du babesten.

“ Sexualitatea lantzea desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatearen alde lan egitea da ”

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33

ileapaindegia

**Silvia**  
peluqueria

Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

943 170474

6888 19336

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**

**SEHIGA**

PROTECCIÓN LABORAL  
PLAN BARCELONÉS  
OMNIBUS

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

# MARIBEL GONZALEZ

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Egun guztia kalean nengoen: eskolatik irten, bokadiloa hartu, eta kalera. Ez geneukan gaur egungo umeek dituzten beste etxeko lan.

- Ikasteko aukera izan zenuen?

Aukera izan nuen, baina ez zitzaidan gustatzen.

- Zenbat urterekin ezagutu zenuen senarra?

16 urte nituen. Ezkondu eta gero, 23 urterekin, Eibarre-ra joan ginen. Amaren senide asko Eibarren bizi ziren aspal-didanik, eta umetatik etortzen nintzen bisitan.

- Ze lan mota topatu zenuen Eibarren?

Hasieran ez nuen lanik egin, hilabete gutxiko aldearekin izan nituelako 3 alabak. Senarrak lantegi batean egiten zuen beharra astegunetan, eta tabernan asteburuetan. Taberna bat izan zuen gero Eibarren, eta beste bat Ermuan: Reno taberna. 1983an Erreka edaritegia montatu genuen, eta hona etorri ginen bizitzera.

- Zenbat urte eman zenituen Erreka tabernan?

30 urte inguru. Duela hamar erretiratu nintzen, 62rekin.

- Lan hura faltan botatzen duzu?

Ez. Gustukoa dut taberna, baina lan esklaboa da, ez dizu ematen familiarekin egoteko aukerarik.

- Bazegoen gustuko alderdirik?

Jendearekin harremana izatea oso estimatua da, baina



**Cistiernan (León) jaio zen, duela 72 urte. Sei neba-arreben artean, laugarrena. Ezkondu eta gero etorri zen Euskal Herrira, eta hiru alaba ditu. Erreka tabernan 30 urte eman zituen senarrarekin batera, eta duela hamar urte erretiratu zen.**

ni sukaldean egoten nintzen, eta gainera oso lotsatia izan naiz beti. Gaur egun, adinaren eraginez, bost axola guztia!

- Erretiratu zinetik, zertan eman duzu denbora?

Bidaiatzen, kirola egiten, ikasten, bilobekin egoten...

- Nora bidaiatu duzu?

Azken 10 urteotan Andaluziara joan gara, Kantabriara, Kanarietara, Balearretara, itsas bidaia ere egin izan dugu... Brasilen ere egon gara, neba

bat dudalako bertan, eta Londresen ahizpa bat.

- Ez da erraza izango neba-arreba guztiak elkartzea...

Ez, nire neba duela 50 urte baino gehiago joan zen Brasilerara, eta ordutik behin bakarrik bildu izan gara guztiok, nire ama zendu zenean, duela 19 urte.

- Kirolei dagokienez...

45 urterekin ikasi nuen igeri egiten, bizkarrean arazoak nituelako, eta ordutik astelehenetik ostiralera noa igeri-

lekura. Irtendakoan, ibiltzera joaten naiz, berdin dio euria badago.

- Ikasketei ekin diezula aipatu duzu ere...

Bai, duela urtebete euskara ikasten hasi nintzen, beti izan dudalako gustuko. Pena handiarekin, aurten laga behar izan dut.

- Irratia edo telebista?

Irratia, musika batez ere. Telebista gutxitan ikusten dut, nahiago dut irakurtzea.

- Zer albiste irakurri nahiko zenuke?

Politikariak ados jarri direla, eta gauza positiboren bat egingo dutela. Ez dute ezer egiten-eta!

- Zure bertute eta akats bana? Akatsa datorkit burura: jenio txarra dudala.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Batzuetan gauza guztiek, ton-takeriarik txikienez. Barre ere edozerrekin egiten dut.

- Teknologia berriak...

Ez naiz ondo moldatzen, eta ez daukat inolako interesik.

- Zure eguneko momentua? Ibiltzera noanean, erlaxatu egiten naiz.

- Zure bizitzako egunik zorionsuena?

Senarra soldadutzan zegoen Zaragozan, eta bisitan etorri zitzaidan ezustean. Sekulako poza hartu nuen!

- Denboran atzera egin ahalko bazenu...

Alabekin denbora gehiago pasatuko nuke. Kalean hazi dira...

Dorleta Vidal






ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entrepresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)

Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12



**Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGUAK**  
**943 030 299**

**Erdikokale 13 (Ermua)**

**MALLABIA**

Argazki hau Mallabiko plazan aterata dago. Idien aurrean Guenengo Anis Gerenabarrena dago, eta berarekin batera Juan Landa Otsonekue eta San Martingo Juan Bilbao. Irakurleren batek baldin daki zein urtetakoa den argazki hau, idatzi mezua drogeten@gmail.com helbidera.

**ERMUA  
1951**

M<sup>a</sup> Luisa Mugerza abenduaren 26an ezkondu zen Joseba Idigorasekin eta bere solteratako despedidan senide zein lagunez inguratuta egon zen. Santukua dorretxe parean erretratatu ziren eta bertan daude tente, ezkerretik eskumara Pastora Ormaetxea, Victoria Amillategi, Miren Erdoiza, Margari Urizar, Victoria Aranburu, Miren Olabe, Beatriz Goitandia eta Angelita Ciarsolo. Eserita erdian Feli Zenarruzabeitia, Mirentxu Mugerza, Garbiñe Erdoiza, Petra Buruaga, M<sup>a</sup> Luisa bera, Francisca Buruaga, Javi Mugerza,

Amalia Ciarsolo, Jose Ignacio García, Margarita Mugerza eta M<sup>a</sup> Luisa Zabala. Lurrean jarrita, Margarita Arrizabalaga, Elbire Agirregomezkorta, Mari Paz Olabarri, Cecilia Izagirre eta Elisa Ziarsolo.



**Caperos**

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogjartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

**OSASUNA \* ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apandegi bat  
baino gehiago!!*

 Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

**943 17 28 09 • Goienkale 12**

**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Eskuz egindako  
terapietan adituak

  
**ARTROS**  
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua  
617 680 156  
www.artrosermua.com



**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

## LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.  
© 648 62 52 09.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.  
© 632 04 40 01



Abenduaren 30ean  
Zorionak mutil haundi!! Handitzen handitzen... Pila bat disfrutau eguna ta patxo potolo familixa osuan partez!!!



Abenduaren 10ean  
Aratz zorionak zure lehen urtebetetzean! Jarraitu hain alai eta irribarretsu! Musu bat aiton-amona eta izekoren partez. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu.



Abenduaren 11n  
Zorionak Urko. Oso ondo ospatu zure urtebetetzea. Asko maite zaitugu. Muxu handi bat.



Urtarrilaren 2an  
Zorionak printzesa aita, ama eta Inharren partez! 7 urtetxo beteko dituzu laster! Gozatu zure egunaz, asko maite zaitugu!!



Maier, abenduak 2  
Aiora, abenduak 19  
Aiur, urtarrilak 28  
Zorionak hirukote! Jarraitu hain irribarretsu, besarkada erraldoia familia osoaren partez!



Zorionak Naia!!!  
Abenduaren 8an  
11 urte bete dituzu. Asko maite zaitugu!! Musu asko Izaro, Eder, Nico eta Vaneren partez!



Abenduaren 29an  
Zorionak aitatxo!!! Ondo pasa zure urtebetetzean. Musu potolo bat Lucia, Libe eta amatxoren partez! Asko maite zaitugu!!



Abenduaren 16an  
6 urte haundi beteko dituzu. Zorionak Gorka, mutil haundi!. Patxo pila bat familia guztiaren partez.

## IRAKASKUNTZA

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat.  
© 688 68 36 55.

Hurrengo zenbakirako azken eguna: Urtarrilaren 19a. drogeten@gmail.com

# FEREDU

## SOLUTIONS S.L.



- \* HEZETASUNAK
- \* ERREHABILITAZIOA
- \* INPERMEABILIZAZIOAK
- \* MANTENIMENDUAK
- \* IGOGAILUAK
- \* ERREFORMAK
- \* FATXADAK
- \* ITE
- \* TEILATUAK
- \* GARBIKETAK

[www.feredusolutions.com](http://www.feredusolutions.com)  
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

**ZINEA**

**Hilaren 2tik 4ra:**  
"Matrix Resurrections"

**Hilaren 8tik 11ra:**  
"El lodo" + "Silent night"

**Hilaren 15etik 18ra:**  
Mamá o papá" +  
"Cerca de ti"

**Hilaren 22tik 25era:**  
"El contador de cartas" +  
"La vida era eso"

**Hilaren 29tik 1era:**  
"West side story" +  
"Delicioso"

Ermua Antzokian.  
Hainbat ordutegi.  
Antolatzailea: Ermuko  
Udala.

**ZINE-KLUBA**

**Hilaren 6an:**  
"Tres pisos"

**Hilaren 13an:**  
"Bolante baten historia"

**Hilaren 20an:**  
"My beautiful Bagdad"

**Hilaren 27an:**  
"Apples"

Ermua Antzokian.  
20:30ean.  
Antolatzaileak:  
Ermuko Udala.  
Laguntzailea:  
Mudo-drogot  
cinematografo.

**UMEENTZAKO  
ZINEA**

**Hilaren 2an:**  
"Valentina"

**Hilaren 9an:**  
"Trash" (Euskeraz)

**Hilaren 16an:**  
"Clifford, el gran perro rojo"

**Hilaren 23an:**  
"El valle de las linternas"

**Hilaren 30ean:**  
"Canta 2"

Ermua Antzokian.  
17:00etan.  
Antolatzailea:  
Ermuko Udala.

**MUSIKA**

**Hilaren 8an:**  
Boogie-Woogie kontzertua:  
Nirek Mokkar  
& His Boogie Messengers.  
20:00etan.

Lobiano Kulturgunean.  
Sarrera: 10 €.  
Antolatzailea:  
Ermuko Udala.

**Hilaren 28an:**  
Kontzertua:  
El Drogas akustikoan.  
20:30ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrerak: 15 €  
Antolatzailea:  
Ermuko Udala.

**ANTZERKIA**

**Hilaren 21ean:**  
"Shakespeare en Berlín",  
Arden Producciones.  
20:30ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 10 €.  
Antolatzailea:  
Ermuko Udala.

**UMEENTZAKO  
EKITALDIAK**

**Hilaren 3an:**  
Umeentzako kontzertua:  
"Goazen 8.0",  
Pausokaren eskutik.  
16:00etan eta 18:00etan.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 6 €.  
Antolatzailea:  
Ermuko Udala.

**Hilaren 5ean:**  
Errege Magoen  
kabalgata.  
18:00etatik aurrera.  
San Lorenzo ikastetxetik.  
Laguntzaileak:  
Ermuko Kultur Zentroak.

**Hilaren 22an:**  
Umeentzako  
ipuin-kontaketa.  
17:30etan.  
Lobiano Kulturgunean.  
Antolatzailea:  
Ermuko Udala.

**ERAKUSKETA**


**Hilaren 17tik 30era:**  
Argazkiak:  
"Nigerren, mundu  
guztian bezala, emakumeen  
erabakia".  
18:00etatik 20:00etara.  
Lobiano Kulturgunean.  
Antolatzailea:  
Bakerako Lankidetz  
Batzarra.

**Urtarrilaren 30etik  
otsailaren 13ra:**  
Argazkiak:  
"Ermua Antzokia 2021".  
Oscar Blancoren lanak.  
18:00etatik 20:00etara.  
Lobiano Kulturgunean.

**BESTELAKOAK**

**Hilaren 30ean:**  
Extremadurako txarri-boda.  
10:00etatik aurrera.  
Extremadurako Kultur  
Zentroan.  
Antolatzailea:  
Extremadurako  
Kultur Zentroa.

Patxi López



**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolajea
- \* Errealak
- \* Giltzak
- \* Sarrailagintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 **ERMUA**



**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 **ERMUA**

**Enter**  
Informática

SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea  
943 17 90 37  
enter@informaticaenter.com



Luis Cañas  
Amaren  
Cair  
Ehun  
Txakoli Astobiza  
Pazo Señarans  
Cava Oriol Russell

Cair  
Casar de Burbia  
Bodegas Valdemar  
García de Olano  
Manzanos Wines  
Bernard Ricard Wines  
Faustino García Martínez.

T.943176075

arral@arral97.com | Pol. Goitondo-Galkoa, Parc. 7 - Pab. 1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

**Prоба-Leku**  
Ileapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**OINAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 ☎ 943 17 47 44

**irale**  
 Hertz Klinika  
 Clínica Dental  
 C/ Zeharkalea, 8  
 48260 Ermua, Bizkaia  
 Tel. 943 17 71 34

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbedorea

Hertz klinika berri eta handitu dugu  
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

# OSASUN GIDA

**IRAZ** Odontologia  
 Fisioterapia  
 943 578 617  
 615 793 717  
 www.irazuklinika.com

Zuri egokitzen den odontologia  
 La odontología que se adapta a ti

**SAN PELAYO**  
 PARA LA ORO Y LA OROLOGIA

Dña. OLATZ GARCÍA ARREGUI

- P.A.D.I
- IMO
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04  
 ✉ info@irazu.esampelayo.com  
 📍 San Pelayo, Zeharkalea 5  
 48260 Ermua (Bizkaia)

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,  
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

## Une zailenetan guztiaz arduratzen gara



Valdespinako Markesa kalea, 16



### Hileta zerbitzuak:

- 24 orduko hileta-zerbitzu iraunkorra.
- Agur pertsonalizatuak.
- Gestoria: azken borondateak, oinordetzak, pentsioak, aseguruak...
- Estatuko eta nazioarteko lekualdaketak.

**T. 943 176 159**

Ermua · Eibar · Elgoibar · Bilbo · Basauri · Galdakao · Barakaldo · Portugalete ·  
Santurtzi · Leioa · Getxo · Sestao · Karrantza · Zalla · Muskiz · Balmaseda